Din dan don... hilabete baino ez da falta errateko, eguberri on!



UTZITAKOA

Batzuk irrikaz bizi dituzte, bertzeak egutegiko orriari buelta emateko desiatzen egonen dira. Urte sasoi hau maite edo ez, denek nabaritu izanen dute eguberriak ate joka ditugula. Datozen asteetan apaingarriak jarriko dituzte zintzilik karriketan. Etxe atarietan argiak eta komertzioetako erakusleihoetan ere ez dira faltako jateko gozoak eta oparitzeko hamaika proposamen. Eta urte berrian sartu aitzinetik, norbere burua maitatzeko tarte bat hartuko bagenu? Turroi aitzineko gogoetak ere hasiko dira eta ez genituzke alde batera utzi behar euskaraz oparitzeko dauden milaka aukerak. Ahotsak berotzen hasi eta baserritar jantziak ta abarkak prestatzen ere hasi... Ez erran abisatu ez dugunik. Kriseiluaren argia mendian beheiti datorrela ikusi aitzinetik, bada galtza bete lan!











EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

Aurtengo berrikuntzak esku-eskura, oparietan euskarari lekua egiteko



Olentzero eta Mari Domingiri gutuna idazten hasiak izanen dira dagoeneko hainbat haur eta gaztetxo. Zerrenda horretan jartzeko, badira euskaraz milaka liburu, musika, jostailu eta joko. Aukeraketan laguntzeko, Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako 95 Euskara Zerbitzuk baino gehiagok Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute. Aurtengoa 28. edizioa da.

Bai etengabe eguneratzen den web orriak bai paperezko edizioak, biek ere itxura berria estreinatu dute, eta jasota dituzten produktuak bi ataletan dituzte sailkatuak: atal bat 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua dago, eta bestea 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin.

Paperezko edizioak 58.000 ale

Egunotan banatuko dira paperezko edizioaren 58.000 aleak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Azkeneko urteotan egin den modu berean, aurten ere paperean editatzen den katalogoak bi azal izanen ditu: azal batek sarbidea ematen die 12-16 urte bitarteko gazteentzat eskaintzen diren produktuei, eta beste aldeko azalak 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuei eta gurasoentzako materialei. Aurkezpen honi esker produktuen bilaketa nabarmen errazteaz gain, nortasun propioa ematen zaio adin tarte bakoitzari. Jakina, paperezko edizioak ez ditu erakusten *Katalogoa.eus* web orrian jasota dauden produktu berri guzti-guztiak, atalka antolatutako hautaketa bat baizik: musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala.

Web orria bizi-bizirik

Katalogoa.eus bizi-bizirik dagoen web orria da; maiztasunez eguneratzen da, argitaratzen diren produktuak sartu eta deskatalogatu direnak kenduz. Orain 8.600 produktu inguru biltzen ditu. Gainera, zerbait erosi nahi izanez gero, produktuan klik eginez argitaletxearen denda birtualetara sartzeko aukera ematen du

Paperezko edizioak bezala, *Katalogoa.eus* web orriak ere bi atal nagusi ditu: 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua bata, eta 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin osatua bestea. Eta ez hori bakarrik, atal bakoitzak bere direktorioa du eta bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da produktuak tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin tartearen edota prezioaren arabera bistaratu daitezkeelako. Urtean zehar azken nobedadeen berri izan nahi dutenei, buletin elektronikora harpidetzeko bidea ere ematen die web orriak. Merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak erabiltzaileen eskura modu erraz batean jarriz.

IDOIA BEAUTÉ 25...



IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE

idoiabeaute.com





Eguneroko erritmo bizia gelditu eta norbere buruari eskainitako tartea

Eguberrien atarian bezeroak goxatzeko hainbat eskaintza dituzte eskualdeko ile apaindegiek, estetika zentroek eta komertzioek

Norbere burua goxatzeko tarte bat hartzea opari ederra izaten da. Badira lasaitasun bila mendira joko dutenak, baina ez dira gutxi herriko ile apaindegira, estetika zentrora edo arropa dendara joatea nahiago dutenak: azalekoa zainduta, mamia ere zaintzen delako.

Batzuetan ez da aldaketa handirik behar izaten. Nahikoa da ile apaindegitik sartu-irtena egitea: ilea moztu, kolorea eman edo orraztea. Bertze guztia alde batera utzi eta pare bat orduz, norbera erdigunean jartzea da asmoa. Aitortu behar da ile apaintzaileek psikologo funtzioa ere aunitzetan betetzen dutela.

Ile apaindegian eskaintzen dituzten zerbitzuen artean arrakasta handia dute tratamendu pertsonalizatuek: ile zuntzaren eta buruko larruazalaren egoera zein den aztertu eta pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako formulak eskaintzea da asmoa. Ile lehor, porotsu eta kizkurrendako hidratazio eta nutrizio tratamenduak gomendatzen dituzte. Olio naturalak, azido hialuronikoa edo gurin begetalak erabiltzen dituzte malgutasuna eta distira berreskuratzeko. Tindagai, dekolorazio eta bero tresnek kaltetutako ilearendako, berriz, keratina, aminoazido eta zuntza barrutik sendotzen duten tratamenduak gomendatzen dituzte. Ilearen kanpoko itxura bezain garrantzitsua da buruko larruazalaren egoera. Koipea, azkura... tratatzen dituzten produktu naturalak ere badaude merkatuan eta erorketaren aurkako eta dentsitatea handitzeko tratamenduak ere aukera bikaina dira.

Ile apaindegiak ez dira zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzen dituzten bakarrak. Estetika zentroetan ere bezero bakoitzaren beharrak aztertu eta irtenbide pertsonalizatuak eskaintzen saiatzen dira. Depilazioa, manikura, makillajea, laserra, garbiketa, radiofrekuentzia, presoterapia, plasma... etengabe eraldatzen ari den sektorea da eta azal eta gorputz bakoitza bakarra dela ulertuta, lanari ekiten diote profesionalek.



MAGNIFIC

Kontsultan eskaintzen dituzten tratamenduez gain, produktuen salmentaz ere arduratzen dira. Eguneroko errutinetan txertatzeko kremak, garbiketarako produktuak, makillajea... izaten dituzte aukeran eta gehienetan, eguberrietan oparitzeko kaxa edo saski bereziak ere izaten dituzte eskuragarri.

Arropa, osagarri eta oinetakoen salmentak ere goiti egiten dute urte sasoi honetan. Familiako, laneko edo lagunarteko otorduen aitzakian, askok ez dute armairua berritzeko zalantzarik izaten. Gorria izan da urtetan eguberriarekin lotu izan den kolorea, baina aurten borgonia, berdea eta marroiak hartu dute bere tokia. Bordatuak, *lentejuelak* eta lumak lotu izan dira gauetako ospakizunekin, baina geroz eta gehiago dira nolabaiteko oreka bat bilatzen dutenak: asmoa ez da egun horietan mozorro bat soinean jartzea. Eroso sentitu eta kanpoko itxurak bat egin dezala norberaren izaerarekin.



EGUBERRI ON FAMILIA!

BIOK

BIOK

EXPERIENTIAL SHOPPING

Promozioak, zozketak, deskontuak eta Gabonetako produktu bereziak gure **dendetan eta webgunean.**

ventabiok.com





«Bitxiei bigarren bizitza bat ematea da asmoa, balio sentimentala mantenduz»

LUIS MUÑOZ ITURRI KALASH



Bizitza osoa darama Luis Muñozek bitxingintzari lotua.

Eneritz Iraola BERA

Eskolatik atera, bizikleta gainera igo eta ziztu bizian joaten zen umetan Luis Muñoz Iturri aitaren tailerrera: «bitxigilea eta erlojugilea zen. Gozatu egiten nuen aita lanean nola aritzen zen ikusiz. Harrituta egoten nintzen bere eskuekin zer egiteko gai zen ikusten». Horrelaxe, aitari begira, piztu zitzaion gerora bere ofizio bilakatuko zenarekiko interesa: «Pixkanaka hasi nintzen tailerrean saltsan eta aitarekin batera gauzatxoak egiten». Harro dio: «izan nezakeen irakaslerik hoberena izan nuen. Berak erakutsi zizkidan bitxigile izateko sekretu guztiak». Ez zen edonolako eskulangilea: «garai bateko erlojugilea zen. Orain piezaren bat falta bazaizu fabrikara deitu eta egina bidaltzen dizute. Duela 60 urte beraiek egin behar zituzten behar zituzten pieza guztiak». Argi dio: «eskulanarekiko maitasuna berari zor diot».

Hogei bat urte zituela hasi zen bitxiekin lanean, baina saltzaile bezala ibili zen urte batzuetan: «argi ikusi nuen eskulana zela niri gustatzen zitzaidana». Mamen ezagutu eta Berako Legia karrikan ireki zuen bere lehenbiziko tailerra: «horixe izan zen Kalashen hasiera». Handik hiruzpalau urtetara lokalez aldatu zen: «geroztik Kanttonberri karrikan ari naiz lanean. Data zehatza ez dut buruan, baina 40 urte inguru izanen dira Kalash martxan jarri nuenetik eta Donezteben ere badut bertze denda».

Bitxigintza eta erlojugintza biak ezagutu ditu hurbiletik eta argi du bitxiekin lan egitea duela berak gustuko: «erloju batean ezkutuan gelditzen den lan pila bat dago. Makinaria zehatz bat du eta konponketa ttiki batek egunetako lana eska dezake. Gero, bezeroak erlojuaren orratza geldirik edo martxan ote dagoen bakarrik ikusten du». Bitxigintzan, berriz, agerikoa da egindako lana: «ikusi egiten da. Sormena lantzeko aukera ematen du; bitxi bat hutsetik sortu edo moldatzekoa». →

«Bitxigintzak sormena lantzeko aukera ematen du eta nik eskulan hori dut gustuko, bitxi bat hutsetik sortu edo moldatzea»

GABONAK PREZIO HOBERENEAN

EGUBERRI ON!

Moda, osagarriak, lurrinak, bitxiak etxeko produktuak eta elektronika. Gainera, astero prezio bereziak gure supermerkatuetan.



Astelehenetik igandera eta jai egunetan zabalik.

*Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik

30 1996 | 2026

Ikusi gure eskaintza guztiak

IBARDIN · DANTXARINEA
BEHOBIA · LUZAIDE

Tel. +34 948 625 130 (Es.) www.venta-peio.com

@peioventa @venta.peio @venta.peio

VENTA PEIO® GEHIAGO EMATEN DIZU







⟶ Bere tailerrean urrezko bitxiak eraldatzen ari denean gozatu egiten du eta nabari zaio horri buruz solasean hasten denean: «Erabiltzen ez diren bitxiak, urre arrastoak, parea galdu duen belarritako bat edo hautsita edo zaharkituta gelditu diren urrezko piezak urtu eta bitxi berri bat egiteko aukera dugu». Horrekin, «familiako oroigarrien balio sentimentala mantendu, metalaren kostua aurreztu eta ehuneko ehunean pertsonalizatua den pieza bat sor dezakezu».

Neurrira egindako lana

Neurrira egindako lana izaten da: «bezeroarekin batera joaten naiz pausoz pauso bitxia diseinatzen. Prozesu guztiaren parte izatea ere berezia da beraientzat». Hala, abiapuntua bezeroak duen ideia bat izaten da: «eredu baten argazki edo marrazki bat erakutsi, nik eginda ditudan lanak ikusi eta pausoz pauso joaten gara pieza osatzen. Argizaria erabiliz prototipo bat egiten dut batzuetan eta horrek aukera ematen digu bolumenak ikusi eta horren gainean moldaketak egin ahal izateko». Etxean dituzten urrezko piezak eramaten dizkiote: «izan litezke eraztunak, pultserak, lepokoak... Pieza horrek harribitxiak baldin baditu kendu eta gorde egiten dira berriro erabili ahal izateko». Lehengaia bezeroak jartzen duenez, kostua nabarmen murrizten da: «bitxigilearen eskulanaren eta diseinuaren kostua soilik ordaintzen da». Gainera, urre berria erauztea ekiditen denez, «ingurumenean ere eragin txikiagoa izanen du».

Behin urrea urtuta, barra bat ateratzea izaten da hurrengo pausoa, «pieza bat hutsetik hasteko materiala prest izanen dugu horrela». Urte hauetan guztietan mota guztietako lanak egin izan ditu eta adibide bezala, azken aldian egindako ezkontzako eraztunak aipatu ditu: «aukera polita da dagoeneko zure ondoan ez dauden senitartekoen eraztunak urtu eta zuretzat eraztun bat sortzea. Esanahi berezia hartzen dute horrelako lanek».

Pieza osoa urtu gabe, aldaketa txikiak ere egin daitezke, «bitxiak moldatu eta eguneratu. Adibidez kaxa batean gorderik zegoen brotxe bat zintzilikario bihurtzea edo erabiltzen ez dugun pieza baten harribitxiak



erabiliz eraztun polit batzuk egitea. Urrearen edo harribitxien balioa mantendu eta erabiliko duzun zerbaitetan eraldatzea da asmoa».

Urrearen balioa

Bitxigileen lanak etorkizunik ba ote duen galdetuta, gizartean aldaketa handia eman dela erantzun du: «duela hamarkada batzuk urreari bertzelako balioa ematen zitzaion. Bazegoen urrezko bitxiak erosteko nolabaiteko kultura bat. Gure amatxiei gustatzen zitzaien urrezko belarritakoak, eraztunak edo lepokoak izatea, baita bilobei oparitzea. Gaur egungo gazteek nahiago dute dirua bidaia edo mugikor batean gastatu bitxi batean baino». Aitortu du nahita ere, ez dela garai batean bezain eskuragarria: «lehen urrearen prezioa askoz demo-kratikoagoa zen. Orain prezioak goia jo du. Horregatik, gaur egun urrezko bitxien salmentak sinbolikoak dira». Horri buelta eman nahiko lioke: «jendeak ikusi beharko luke bitxi bat erosi, erabili eta handik urte batzuetara ere balioa izaten segitzen duela. Gainera, etorkizunean beti izanen da horrekin pieza berri bat sortzeko aukera. Gaur eta bihar, urreak urre izaten segiko duelako».

«Bezeroarekin joaten naiz pausoz pauso bitxia diseinatzen. Beraientzat ere berezia izaten da prozesuaren parte izatea»

ZER ERAMAKI DUZU HOR?

Eguberrietan gehien aditzen den galdera da.
Erantzunak, denei irribarre bat marraztea espero dugu.

Eguberri on



DENDA ORDUTEGIA ABENDUAN

Astelehenetik ortziralera 9etatik 18etara.
Abenduak 8, asteartea: ITXITA
Abenduak 12 eta 19, larunbatak: 9:00 - 13:00 h.
Abenduak 24, ortzeguna: 9:00 - 14:00 h.
Abenduak 31, ortzeguna: 9:00 - 13:00 h.

Martiko

Momentu Handien Zaporea





«Zenbait produktu erosi aurretik, aurrez aurre ikusi eta ukitzea komeni da»

IÑAKI CAMBRA GUTIERREZ CASA CAMBRA



Iñaki eta Amaia Cambra Gutierrez anai-arrebak, Iruñeko Casa Cambrako erakusmahaian.

Eneritz Iraola IRUÑEA

1951. urtean ireki zituen ateak Iruñeko Casa Cambrak. Ceferino Cambra izan zen negozioari hasiera eman ziona eta sokari tinko eutsi diote ondorengo belaunaldiek. 75 urte bete dituzte aurten eta mostradorearen atzeko aldean beste hainbeste urtez segitzeko asmotan dira: «etxerako oihalak erostera etortzen diren horiei, etxean daudela sentiaraztea da gure helburua».

Iñaki Cambra Gutierrez, familiako hirugarren belaunaldia da eta aitonaren eta aitaren pausoei segika, berak hartu du erreleboa: «duela bi urte hasi zen aita erretiroa hartzen, baina ez da guztiz joan. Datozen urteetan erronka polita izanen da nire aitaren eskua askatu eta nire kasa lanean hastea». Erakusmahaiaren beste aldean ez da bakarrik ariko: «duela sei hilabete arreba hasi zen nirekin lanean eta Idoia eta Belenek ere urteak daramatzate gurekin. Lantalde txikia gara, baina, gertukoa, etxekoa».

75 urtek askorako eman dute eta ez dute ahaztu nondik heldu diren: «Otsagabikoa zen aitona eta Iruñera bizitzera etorri zenean denda ttiki bat irekitzea erabaki zuen. Bere familiak bazuen denda Otsagabian eta zekien horretan, merkataritzan, lanean hastea erabaki zuen. Horrela sortu zen Casa Cambra». Denetarik saltzen hasi, lentzeria saltzera igaro eta 80. hamarkadan etxerako oihaletan espezializatzea erabaki zuten. Geroztik bide horri eusten diote: «ohe estalkiak, mantak, maindireak, estalki eta edredoi nordikoak, hondartzako toallak, mahai zapiak, albornozak... saltzen ditugu».

Familiako negozia izanik, denda beti beraien «bizitzaren erdigunean» egon dela aitortu du Iñaki Cambrak: «Hurbil bizi ginen eta aunitzetan etortzen ginen aitak denda ixten zuenean bere bila. Ttikitatik hemen ibili gara. Lehenbizi jolasean, gero laguntzen eta orain lanean».

Ttipi-Ttaparekin lotura

Denda historikoa da Casa Cambra eta Ttipi-Ttaparekin duen lotura ere aspaldikoa da: «Ikusi genuen Baztan eta Bortzirietako landetxe askotatik etortzen zirela erostera. Ttipi-Ttapan iragarkiak jartzen hasi ginen eta ikusi genuen norbanakoak ere etortzen hasi zirela. Horrela segitzen dugu, hamabostean behin gure ira-

garkia jarriz. Baditugu bezero ugari hangoak eta oso eskertuta gaude».

Komertzio ttikiaren egoera

Komertzio ttikiarentzat «garai zailak» direla aitortu du: «gure inguruan ikusten dugu komertzio ttikiak edo betiko dendak gutxinaka-gutxinaka ixten doazela». Beraiek, ordea, eusten diote: «urtetako historia dugu atzetik, oinarri sendoak ditugu eta hori dugu gure alde». Sektoreak duen erronka handietako bat ere momentuz gainditu dute: «errelebo faltari nola aurre egin asmatzea». Bere ustez, komertzio ttikiek hortxe dute koxka handiena:. «Ordutegiak eta bizitzeko modua asko aldatu dira. Jendea ez dago goiz eta arratsaldez eta asteburuetan lan egiteko prest. Jendeak hori ikusten duenean argi esaten du, 'ez dut niretzat nahi'». Ez da beraien kasua izan eta bere aitonak eta aitak bezalaxe, «erretiroa bertan hartu ahal izatea» du amets.

Erosteko ohiturak aldatu diren arren, baikortasunez dio: «badira hurbileko komertzioaren aldeko apustua egiten dutenak ere. Batzuk etxean beti hala ikusi dute. Gurasoengandik hartutako ohiturak dira, badakite bidea eta etorri egiten dira».

Badakite bezeroak zaintzea ezinbestekoa dela eta horregatik, askotariko produktuak eta prezioak dituzte dendan: «Maindire sorta bat nahi baduzu 19,90 euroan daukazu, eta 199,90ekoa nahi baduzu ere hemen topatuko duzu. Gauza berexiagoak izan behar dituzu dendan, baina baita denontzat eskuragarriak diren kalitatezko produktuak ere».

Hurbileko merkataritzari eman nahi dio garrantzia eta ohartu dira bezeroek «produktua ikusi eta ukitu» nahi dutela: «Casa Cambrara etortzen dena konturatzen da zenbait produktu erosi aurretik bertatik bertara ikustea komeni dela». Jendearen galderak erantzutea ere bada beraien lanaren parte: «jendeak badu jakin-mina eta zer nolako kalitatea duen, non fabrikatu duten... galdetzen dute». Jende gaztearen artean ere «interesa» badagoela uste du: «Bestelako kontzientzia ekologiko eta ekonomikoa dute eta askok tokiko merkataritzaren aldeko apustua egiten dute».

Hiru arlotan lanean

Etxerako oihalak saltzen dituztela azaldu du, baina horren barrenean hiru atal bereizten dituzte: «mahaia, bainua eta logela». Logelarako diren produktuetan, sasoi aldaketetan bilduma berriak ateratzen dituzte, «udazkenean urtero diseinuz aldatzen dituzte funda nordikoak edo edredoiak, lumazko edredoiak eta flanelazko eta koralinazko ohe-jokoak, lodiagoak eta beroxeagoak direnak». Sofarako manta goxoak ere asko saltzen dituzte: «mundu guztiak du bat eta oparitzeko orduan ere komodina da». Eguberrietako produktu izarra, ordea, «albornoza» dela azpimarratu du, «jende askori falta zaiola dirudi» gaineratu du umorez. Bainurako toallak ere urte osoan saltzen dituzte, baita maindireak ere: «egunero erabiltzen direnez, askotan aldatzen dira». Eguberrietako familia bazkarien kontura mahai-zapiak saltzen ere hasiak dira: «hor ere denetarik dago. Batzuk zerbait praktikoa nahi dute, erraz garbitzen dena eta besteek zerbait klasikoagoa nahiago dute: telazkoak eskatzen dituzte eta eguberrietako detailetxoak eta brodaturen bat badute hobe». Bada denentzako tokia, familia baten historia gordetzen duten apaletan.



75. urteurrena bete du aurten Casa Cambrak.







KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

zuri
SALON · BOUTIQUE
Santiago, 29 | ELIZONDO
Tel. 948 10 32 00
M. 676 14 00 81
Estetika aurreratua, aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak, BBGLOW, radiofrekuentzia, presoterapia, aurpegiko kinesioliftinga, *impulsos de juventud* eta askoz ere tratamendu pertsonalizatu gehiago eskaintzen ditugu!
secretos del agua
Eguberritan oparitu edertasuna!

KIMETZ Belardenda
Opari batek beti zerbait erran nahi du.
Hemengoek zaindu egiten dute.
Infusio bat. Krema bat. Botila bat.
Hotz-bero zakutxo bat.
Zuk aukeratutako saski bat.
Detailetxo bat.
Zuretzat ere.
KIMETZ BELARDENDA
Doneztebe · 2008tik ongizatea ereiten
kimetzbelardenda.com

«Bezero bakoitza entzun eta bere beharretara egokitzea da lehentasuna»

LOREA AGIRRE IRIBARREN KIMETZ BELAR DENDA

Eneritz Iraola DONEZTEBE

Betidanik izan ditu belar dendak gustatuko Lorea Agirre Iribarrenek. Horregatik, Doneztebeko belar dendaren erreleboa hartzeko aukera suertatu zitzaionean ezin izan zuen alde batera utzi. Hemezortzi urte pasa dira Doneztebeko Kimetz belar dendaren ardura bere gain hartu zuenetik eta denborak ez dio hasierako ilusioa itzali.

Kimetz belar dendan, «kalitateari eta hurbiltasunari garrantzia handia» ematen diotela nabarmendu du: «Ez gara modetan sartzen den belar denda bat. Pertsonen osasuna eta ongizatea kontuan hartzen ditugu eta bezero bakoitza entzun eta bere beharretara egokitzea da gure lehentasuna». Argi du gakoa «arreta pertsonalizatua» eskaintzea dela, «batentzat baliagarria dena beste batentzat kaltegarria izan daiteke. Ez dago denentzat baliagarria den formula magikorik». Haratago joan da, «orain adibidez, kolagenoa eta magnesioa modan daude. Nik ez dut uste mundu guztiarentzat lehenbiziko aukera izan beharko luketenik. Beharrezkoa bada bai, baina beharrezkoa ez bada ez da zertan hartu».



Nutrizio kontsulta ere eskaintzen du.

Mimoz egindako aukeraketa

Belar dendako produktuak mimo handiz aukeratzen dituztela nabarmendu du: «gure osasunerako eta ongizaterako egokiagoak direnak lehenesten ditugu. Garantia hori baduzu eta gero hurbiltasun hori eskaintzen dugu. Galdetzen ahal da, edozein duda kontsultatu eta elkarrekin joanen ginateke behar duzun hori bilatzen, aholkatzen, baloratzen...». Eskaintza zabala dute: «elikagai ekologikoak, hurbilekoak, prozesatu gabeak, glutenik gabekoak... dauzkagu. Kosmetika naturala, oparitarako artikuluak, infusioak, etxeko garbiketarako produktuak, drogeria...». Eta ez hori bakarrik, «nutrizio kontsultak ere eskaintzen ditut».

Urtetako esperientzia du eta profesional bezala garatzeko aukera ere izan du Kimetzen. Bere lan egiteko modua «errotik» aldatu dela aitortu du: «duela hemezortzi urte pisu kontrolean jartzen genuen arreta. Gaur egun, pisuaren kontrolari ez diot hainbesteko garrantzia ematen. Pertsonaren osasunari eta ongizate orokorrari lehentasuna ematen diodalako». Bezeroen aldetik «entzuna izateko» geroz eta behar handiagoa dagoela nabaritzen du: «norbaiti gauzak kontatzekoa». Kezkatuta dio: «antsietatea, konpultsibitatea...kontsultan maiz lantzen ditugun egoerak dira». Bertzelako gaixotasunei lotuta ere, jende aunitz joaten da galdezka: «interes eta behar gehiago dagoela ikusten ari gara».

«Belar dendako produktuak mimoz aukeratu ditugu, gure ongizaterako egokiagoak direnak lehenetsiz»

Sare sozialak, Internet... hain eskura izateak ere badu bere arriskua: «informazio hain anitza eskura izateak, desinformazio batera ere eramaten gaitu». Horrekin lotuta, jendeari laguntzea bere lanbidearen parte dela uste du: «jendeak eskertu eta baloratu egiten du bere kasua entzun eta berari eskainitako erantzun bat ematea. Aholku errealak ematea da gure asmoa, egunerokoan bete edo aplikatu daitezkeenak. Perfekziotik kanpo, keinu edo aldaketa ttikiak eginez, norbere ongizatearen aldekoak izanen diren erabakiak hartzen laguntzea»». Zehaztu du ahokuak ez direla beti sintoma edo gaixotasun bati lotuak: «gosaritarako, otordurako, umeendako... alternatiba desberdinak ere eskaintzen ditugu. Jendeak ezagutzen ez dituen aukera pila bat ditugu eskura eta probatzea izaten da falta den bakarra. Ezusteko politak hartzen dituzte».

Aldaketa horiekin lotuta, jendearen kontsumo ohiturak ere izan ditu hizketagai Agirrek: «herritik kanpo erosteko ohitura handia dago.Badirudi kanpokoa hobea iruditzen zaigula edo kanpoan erosten dugun hori merkeagoa dela. Baina benetan egin al dugu konparazioa? Nork eskaintzen digu aholkua? Hori ere kontuan hartzen al dugu?». Herrian bertan eskura duguna gehixeago baloratu beharko genuke». Zorionez, badira urtetan irauten duten bezero fidelak ere: «horiek ematen diote egiten dugunari zentzua».

Eguberrietarako aukerak

Eguberrien bueltan, produktu bereziak ere ekartzen dituzte dendara: «Eguberriekin lotzen ditugun artisau gozoak, naturalki azukre gutxiagorekin egindako aukerak, glutenik gabekoak...». Horrekin batera, garrantzitsua da nabarmentzea eskaintzen dituzten hainbat produktu, «urte osoan erabil daitezkeela, baita eguberrietan ere».

Oparitarako ere hainbat artikulu dituzte Kimetzen: «botilak, hotz-bero produktuak, kosmetika, intsentsuak..» Azken urteetan bultzada berezia eman diete saski pertsonalizatuei: «Uste dut denetik dugun garai batean bizi garela eta saskitxo pertsonalizatu bat oparitzea oso aukera polita dela. Jendeak geroz eta gehiago eskertzen ditu gisa honetako opariak». Saskiak osatzeko orduan, norberak erabakitzen du zer sartu: «Ehuneko ehun pertsonalizatua da. Nori oparitu nahi diozun eta zenbat gastatu nahi duzun erraten diguzu eta elkarrekin aukeratzen dugu zer sartu saskian. Kosmetikako produktuak sar daitezke baina baita elikagaiak ere: Txokolatea, kafea, marmeladak, eztia, zerealak, gosaritarako aukerak, infusioak... bakoitzari egiten zaio berak nahi duen horretara egokitutako saskia».

Mitoak hautsiz

Urte berria, asmo berriekin lotu izan da eta urtarriletik aitzinera zaintzen hasteko promesa egiten zuen lehen jende aunitzek. Orain gauzak aldatzen ari direla uste du Agirrek: «badago oraindik datekin funtzionatzen duen jendea, baina nik uste ari garela mentalitate horrekin bukatzen. Pixkanaka ari gara ulertzen ongizatea urte osoko zerbait dela eta geure burua zaintzen hastea dela norbere buruari egin diezaiokegun oparirik ederrena».



Duela hemezortzi urte hartu zuen Lorea Agirre beratarrak Doneztebeko Kimetz belardendaren ardura.

Etxalar
HERRIKO OSTATUA

URTEZAHAR EGUNEKO FARIA
guttienez 20 lagun eta gehienez 50

Partekatzeko:
Foie gras, iberikoak, kroketak eta ganboiak

Ondotik, arrain zopa

Aukeratzeko:
Entrekota, bildots txuletatxoak, txerrikume errea edo zapoa

Postrea:
Pasio fruita musa, esne kondentsatu flana, borrada edo etxeko bonboiak

Kafea + Arigaray ardoak + Xanpain kopa + mahatsak + turroiak

60€

*EGUN HONETAN MENUA ETA ERRAZIOAK BAKARRIK ESKAINIKO DIRA

URTEBERRI EGUNEKO BAZKARIA

Partekatzeko:
Askotariko frijituak

Lehenbizikoak:
Arrain zopa, ganboiak, gula entsalada edo enbutidoak

Bigarrenak:
Entrekota, lupia, arkume-txuletatxoak edo txipiroiak

Postrea:
Flana, arroz esnea, torrada, tarta helatua edo whisky tarta

35€

ARRAZIOAK

Kalamarrak	8€	Enbutidoak	18€
Txistorra	6€	Iberikoak	18€
Kroketak	9€	Patata minak	7€
Oilasko zatiak	8€	Haragi bola	2,2€
Gazta zatiak	8€	Gazta bola	2,2€

T. 679 36 67 66
etxalar.herrikoostatua@gmail.com
Anduetzeta, 15, 31760 ETXALAR